

IPAZTER HERRIKO UDALETXEARI ERIZPIDEA

Ipazterreko Udaletxeak herriko izenaz egin digun galderari erantzunez hau esan daiteke:

Euskaltzaindiak *Euskal Herriko udalen* euskarazko *izendegia* egiterakoan *Ipazter* forma ontzat hartu zuenean kontuan izan zuen inguruetakoko euskaldunek nola deitzen dioten. Hain zuzen ere leku guztietan lehenengo -z- ahoskatu gabe ematen dute, hau da *Izpazter* formaren ordez *Ipazter* eta aldagarriak, txistukariaren disimilazio regresiboa gertatzen delako, eta arrazoi horregatik euskaldunen ohitura errespetatu zen.

Beraz, erdaraz *Ispaster*, ortografiatzeko ohitura gorderik, eta euskaraz *Ipazter*, aldagarrietarik bat hautaturik.

Bilbon 1988-1-15

Alfonso Irigoien
Euskaltzain osoa eta Onomastika batzordekidea